

Guraso agurgarria:

Lerro hauen bitartez eskaera bat luzatu nahi dizuegu:

Ekintzaren araudian zehaztuta duzue neska-mutikoei zein egoera, noiz eta zein adinarekin lagundu behar diezue (zuek edo monitoreek) igerilekuraino, eta zein adinarekin komeni da beraiek bere kabuz egin ditzaten joan-etorria aldageletara. Jakin badakigu zuetariko askok seme-alaba laguntzarekin bat, bertan saioa ikusten gelditzen zaretela, edota igerian egiteko aprobeztatzen duzuela. Horrela, batzuetan gertatu izan da gurasoek, asmo onenarekin bada ere, saioan “sartu” zaretela (materiala edo animoak ematen, zer eta nola egin behar duen esaten, etabar) eta nahi gabe hori baldintzatu. Sarritan horrek ez dio batere mesede egiten saioaren dinamikari eta neska-mutikoen autonomiari.

Horrela bada, honakoa eskatu nahi dizuegu:

- Ahal den neurrian, ez etorri bat zuen seme-alabarekin igerilekuan.
- Ez egon saioa garatzen ari den espazioan; ez taldetik gertu, ezta ere zuen seme-alabatik gertu. Beharra badago monitorea eskatu edo jakinaraziko dizue.
- Ahal den heinean neska-mutikoen autonomia sustatu behar da, progresiboki eta egunez egun. Ez soilik uretan (hori monitorean egin beharra eta helburua da), baita aldageletan, dutxan eta joan-etorrietan ere.
- Neska/mutikoa gurasoekiko menpekotasuna eta-edo atxikimendu maila altua badu, eta autonomia lanketa horretan laguntza berezia behar duela uste baduzue (edo monitorea uste badu), egon eta hitz-egin monitorearekin (edo monitorea egongo da zuekin). Arazoa aztertu eta bideratzeko proposamena luzatuko dizue monitorea, eta elkarlanean lortuko dugu autonomia maila garatzea.

Hori da komunikatu nahi genizuen ideia nagusia. Horrekin lotuta bestelako proposamenik baduzue, monitoreari jakinarazi.

Aldiz aurretik ulertuko duzuelakoan, eskerrik asko.